



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko ekainaren 19a

89. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Sodena SL sozietate publikoak Davalor Salud SL enpresari emandako maileguei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egin (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Sodena SL sozietate publikoak Davalor Salud SL enpresari emandako maileguei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Sodena SL sozietate publikoak Davalor Salud SL enpresari emandako maileguei buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Sodena SL sozietate publikoak Davalor Salud SL enpresari emandako maileguei buruzko fiskalizazio - txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
 - II. Sodena SLren eta Davalor Salud SLren deskribapen orokorra (4. or.).
 - II.1. Sociedad de Desarrollo de Navarra SL (4. or.).
 - II.2. Sociedad Davalor Salud, SL (9. or.).
 - III. Ondorioak (14. or.).
 - III.1. Sodenak Davalor Salud SL enpresari emandako maileguen zenbatespena eta ezaugarriak (14. or.).
 - III.2. Sodenak araudia betetzea Davalor Salud, SLren aldeko bi maileguak ematerakoan (16. or.).
 - IV. Iruzkinak eta oharra (19. or.).
 - IV.1. Milioi bat euroko partaidetza-mailegua (19. or.).
 - IV.2. EIBren 400.000 eta 600.000 euroko maileguak (23. or.).
- Davalor Salud SLk behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioak (27. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz eta Nafarroako Alderdi Popularra foru parlamentarien elkarteak eskatuta, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak 2017ko urtarrilaren 9an erabaki zuen Kontuen Ganberak fiskalizazio txosten bat egin zezala *“Sodenak Davalor Salud SL enpresari emandako 2,2 milioi euroko partaidetza-maileguari buruz”*. Zehazki, eskaera horretan, honako alderdi hauek aipatzen ziren:

- *“Honako hauen azterketa:*

1.a Sodenak Davalor Salud SL enpresari emandako 2,2 milioiko partaidetza-mailegua, kontuan hartuta diru publikoa arriskuan jarri ote den, enpresa horren bideragarritasun ekonomiko zaila dela eta.

2.a Mailegu hori ematearen egokitasuna.

3.a Enpresa berari milioi bat euroko lehen mailegua emateko modua, eta zein txostenen (txosten bat zein batzuk) bitartez eman zen.

- *Bi jarduketa horiei buruz Kontuen Ganberak egiten duen balorazioa.”*

Beste ezer baino lehen, zehaztu beharra dago Sodena SLk Davalor Salud SL enpresari guztira hiru mailegu egin dizkiola, guztira bi milioi euro egiten dutenak; horietako bat bakarra da partaidetza-mailegua, milioi bat euroko zenbatekoarekin.

Eskaera hura betetzeko, aipatutako lana jaso zen Ganbera honen 2017ko fiskalizazio programan.

Legezkotasuna betetzearen gaineko fiskalizazio bat planifikatu eta egin du Kontuen Ganberak, arrazoizko segurtasun batekin, eta harekin iritzia eman nahi izan du aurreko mailegu horiek, alderdi adierazgarri guztietan, halako eragiketetarako Sodenak ezarrita dituen arau eta prozeduren arabera izateari buruz.

Denbora-esparruari dagokionez, parlamentu-eskariari jarraituz, gure lanak 2005eko ekainetik 2015eko martxora bitarteko aldia hartu du.

Lanaren norainokoari dagokionez, funtsean Sodena sozietateak maileguak emateari buruzko esparru orokorra aztertu da, eta aztertu da, halaber, ea Davalor Saludekiko eragiketetan kuantifikazioa, finantza-ezaugarriak eta baldintzak esparru horren arabera diren.

Zehaztu beharra dago ezen gure jarduketa funtsean zentratu dela Sodena sozietate publikoan eta Nafarroako Gobernuan dagoen dokumentazioa berrikustean, zeren eta Davalor Salud SL enpresa entitate pribatu bat baita.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarrenean, Sodena SL eta Davalor Salud SL sozietateen deskribapen orokor bat egin da. Hirugarrenean, egindako lanetik ateratako ondorioak azaldu dira. Azkenik, laugarrenean, aztertutako eragiketei buruzko ohar eta iruzkin batzuk jaso ditugu.

Azterketa-lana 2017ko otsailaren 20tik martxoaren 31ra egin du auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak, Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Jarduketa honen emaitzak Sodena SLko Administrazio Kontseiluko lehendakariari eta zuzendari kudeatzaileari jakinarazi zitzaizkien, bai eta Davalor Salud SLren administratzaile bakarrari, nahi izanez gero egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Epea iraganda, soilik Davalor Saludek aurkeztu dizkio alegazioak behin-behineko txostenari, eta horiek, partzialki, behin betiko txostenean sartu dira.

Eskerrak ematen dizkiegu Sodena SL sozietate publikoko langileei, lan hau egitean emandako laguntzarengatik. Halaber, eskerrak ematen dizkiegu Davalor Salud enpresako kalitate zuzendariari eta Pascual optikari (Tutera) optika horretan instalatuta dagoen IEA makinaren aurkezpenarengatik eta erakustaldiarengatik.

II. SODENA SLren ETA DAVALOR SALUD SLren DESKRIBAPEN OROKORRA

II.1. SOCIEDAD DE DESARROLLO DE NAVARRA SL

Sociedad de Desarrollo de Navarra SL (aurrerantzean, Sodena SL) Foru Komunitateko enpresa-proiektuak bultzatzeko Nafarroako Gobernuak daukan tresna finantzarioa da; haren helburua honako hauetan datza:

- Espezializazio Adimendunaren Estrategiaren (S3) diseinua eta ezarpena koordinatzea, haren bitartez herrialdeko eraldaketa eta garapen ekonomikoa bultzatzeko.
- Nafarroarako enpresa-proiektuen sorrera eta garapena bildu, identifikatu eta bultzatzea, bai tokiko jatorria dutenena, bai kanpotik erakarritakoena ere; horretarako, finantza-tresnak erabiltzen ditu, nagusiki arrisku-kapitalarenak, eta erraztasunak ematen ditu herrialdean kanpoko inbertsioa ezartzeko, eta aholkularitza eta akonpainamendu zerbitzuak eskaintzen ditu.
- Enpresen lehiakortasuna bultzatzea, balioa emanez eta lankidetzeta eta enpresa-hazkundera sustatuz.

2011n, eta enpresa publikoak Nafarroan berregituratzeko prozesua aplikatuz, Egungo Sodena SL sozietatea eratu zen, honako hauen bat-egitearen emaitza gisa: Nafinco SAU, Sodena SA, Fondo Jóvenes Empresarios de Navarra SAU eta Navarra de Gestión para la Administración SAU. Haren kapital guztia Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoarena (NEKP) da.

Honako jarduera arlo hauek dauzka:

- Arrisku-kapitala eta balioa sortzea: Helburu du arrisku-kapitalaren bitartez Nafarroako enpresa txiki eta ertainak bultzatu, finkatu eta haztearekin lotutako enpresa-proiektuak laguntzea. Jarduera arlo horretan sartzen da Davalor Saludi buruzko parlamentu-eskaera. Proiektuetarako laguntza finantzarioa emateko irizpide orokorrak eta aplikatutako prozedurak atal honetako hurrengo epigrafean jaso dira.
- Hazia eta Start Up arloa. Arlo honen helburua da finantzaketa ematea, arrisku-kapitalaren tresna erabiliz, hasten diren enpresa-proiektuei, Foru Komunitatean ekintzailatza berritzailea sustatuz. Laguntza finantzarioa partaidetza-maileguen bitartez edo parte hartuz ematen da, lehenengo kasuan gehienez 100.000 eurotik hasiz eta bigarrean 400.000 eurora iritsiz. Kapitaleko parte hartzea minoritarioa eta aldi baterakoa da, eta Sodenaren bitartez nahiz Start Up Capital Navarra SLren¹ bitartez gauzatzen da.

Lagundutako enpresak edo proiektuek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Garapen-etapa goiztiarretan egon (hazi fasean edo abiatze fasean), eta helbidea eta jarduera nagusia Nafarroan izatea.
- b) Lantalde sustatzaile konprometitua edukitzea (arduratzea eta baliabideak jartzea) proiektuarekin, eta jarduera ezagutzea.
- c) Izaera berritzailea eduki eta hazkunderako gaitasuna izatea.
- d) Errentagarritasun orokor bat lortzeko aukera batzuk edukitzea (errentagarritasun finantzarioa edo fiskala, zuzeneko edo zeharkako enplegua sortzea...).

- Bestelako laguntza finantzarioak. Arlo honen helburua da Nafarroako enpresei laguntza ematea, izaera arrunteko finantza-tresnen bitartez, dela zuzenean, dela finantza-entitateekiko eta elkar bermatzeko entitateekiko akordioen bitartez. Honako laguntza-tresna hauek bereizten dira:

- a) EIBren finantzaketa. Europako Inbertsio Bankuak (EIB) 100 milioi euroko mailegu bat eman zion Nafarroako Gobernuari, Sodenaren bitartez, Nafarroako enpresa txiki eta ertainen eta "mid-

¹ Sodenak kudeatutako sozietatea.

cap² deitutako inbertsio proiektuak finantzatzeko. Kasu guztietan, emateko gehieneko epea 2024ko otsailera bitartekoa da. Funts horiekin hiru laguntza-mota eman daitezke:

Lehena. Sodenaren zuzeneko maileguak. Sodenaren bitartez emandako mailegua aplikatuko zaie inbertsioei edo gastu aktibo ukigarriei (lurrak izan ezik), aktibo ukiezinei (garapenaren, plan-gintzaren eta finantzaketaren kostuak; I+G, eta banaketa-sareak sortzea) nahiz enpresa-ordezkapenera bideratutako aktiboak. Maileguaren zenbatekoa 100.000 eurotik 5 milioi eurora artekoa izan ahalko da, eta proiektuaren kostuaren ehuneko 50 finantzatu ahalko du. Interes-tasa merkatukoa izanen da, ehuneko 0,5eko irekitze-komisioarekin eta kasuan-kasuan zehaztuko diren bermeekin.

Bigarrena. Nafarroako Espezializazio Adimendunaren Estrategiaren (S3) sektore estrategikoen barruan dagoen edozein enpresa-proiektu finantzatzera bideratutako maileguak ematen dituzten finantza-entitateen bitartez. Proiektu bakoitzaren gehieneko zenbatekoa 25 milioi eurokoa izanen da, eta ehuneko 50 bitarte finantzatu ahalko da; gehieneko interes tasa, berriz, ehuneko 5,787 izanen da. Mailegu hauek Sodenaren abal partzial bat izan ahalko dute.

Hirugarrena. Elkar bermatzeko sozietateekin (EBS). Sodenak inbertsioetarako edo aktibo ukigarrietako gastuetarako (lurrak izan ezik) maileguak ematen ditu, edo enpresa-ordezkapenera bideratutakoak. Zenbatekoak 20.000 eurotik hasi eta 600.000 eurora bitartekoak dira, eta ehuneko 100 bitarte finantzatu ahalko dira. Interes tasa merkatukoa izanen da.

b) Elkar bermatzeko sozietateekiko (EBS) hitzarmenak, Sodenak sinatutakoak Nafarroako enpresa txiki eta ertainek eta autonomoek finantzaketarako sarbidea izan dezaten sustatzeko sinatutakoak. ELKARGI eta SONAGAR elkar bermatzeko sozietateekiko lankidetzak hitzarmen bat sinatu da. Entitate horiek maileguaren ehuneko 100 bitarteko estaldurarako abala eman ahal dute. Diru hori honako hauetarako erabili beharko da: aktibo finkoetako inbertsioak; abian jartzerako egiturazko zirkulatuak; hazkundera, eta nazioarteratzeko eta finkatzeko prozesuak.

- Kanpotik heldu diren inbertsioak harrapatzea. Nafarroako Gobernuak, zeina erkidegoa nazioartera ateratzearekin konprometituta baitago, Sodenari esleitua dio Nafarroara kanpoko inbertsioa ekartzeko eta hura finkatzeko egiteko. Herrialdean interesa duen inbertitzaileari, Sodenak aholkularitzako eta akonpainamenduko zerbitzuen aukera zabala eskaintzen die; zerbitzu horiek, izan ere, herrialdean ezartzeko erabakia hartzeko prozesuan zehar gerta daitezkeen behar guztiak estaltzen dituzte.

- Herrialdeko estrategia. Sodena da, Nafarroako Espezializazio Adimendunaren Estrategia (S3) diseinatu ondoren, beraren ezarpenaren koordinazioaz arduratzen den entitatea; halaber, Sodenak babesa ematen die Nafarroako Gobernuaren klusterren politikari. Honako hauek definitzen dira lehentasunezko arlo ekonomikotzat, etorkizunerako perspektiba onenak dauzkatelakoan:

- * Automozioa eta mekatronika
- * Elikadura-katea
- * Energia berriztagarriak eta baliabideak
- * Osasuna
- * Turismo integrala
- * Sormeneko industriak eta industria digitalak

² Enpresa txiki eta ertainak dira 250 langile bitarte dituztenak; "midcap" deitutakoa, berriz, kapitalizazio ertaineko enpresa bat da, 3.000 langile baino gutxiago dituena.

Hurrengo taulan erakusten ditugu Sodenak arrisku-kapitalaren arloan 2016ko ekitaldian finantzatu dituen proiektuak, bai eta jarritako baliabideen guztizko zenbatekoa ere.

Arloa	Entitate kopurua	Ordaindutako kopurua	Konprometitutako zenbateko gehigarriak
Proiektu berriak	5	4.240.000	4.367.000
Zorroko proiektuak	10 ^(*)	7.072.196	3.828.646
Balioaren sorrera, guztira	15	11.312.196	8.195.646
Proiektu berriak	11	635.000	425.000
Zorroko proiektuak	10	482.500	120.000
Hazia eta Start Up, guztira	21	1.117.500	545.000

(*) Horren barruan Davalor Salud enpresa dago, 2016an emandako 400.000 euroko maileguarekin eta hitzartutako 600.000 euroko maileguarekin.

2016an balioa sortzeagatik guztira finantzatutako 15 proiektuetatik, hamar kapitalari egindako ekarpenak izan dira (hiru berriak dira eta zazpi zorrokoak) eta bost maileguak izan dira (bi berriak eta hiru zorrokoak).

ARRISKU-KAPITALAREN ETA BALIOA SORTZEAREN ARLOKO AZTERKETA-PROIEKTUETAN ETA PROZEDURETAN BABES FINANTZARIOA EMATEKO IRIZPIDE OROKORRAK


Arlo honek aztertzen ditu Sodenaren zorroan dauden enpresen bai babesa eman dakiekeen proiektuak, bai geroko jarraipena eman dakiekeenak, enpresa horien jarduera balioa sortzean eta arriskua ahal den guztian gutxitzean datzanean. Sodenak bilatzen du enpresei laguntza ematea honako tipologia honen bitartezko proiektuak abiatzeko, hazteko edo finkatzeko prozesuetan:

- Beren produktuen garapen-etapetan aurrera egitea, merkatura iristeraino.
- Jarduera handitzeko behar diren inbertsioak.
- Hazkunde organikoa, bai eta ez-organikoa ere, beste enpresa batzuk eskuratzea dakarrena.
- Beste enpresa edo negozio batzuekiko integrazio-proiektuak.
- Akziodunen ordezkapena.
- Bertako bazkide bat behar duten atzerriko konpainien ezarpenak.
- Zuzendaritza taldeek enpresa erostea (MBO) edo beste enpresa bat erostea (MBI).

Gainera, proiektuek beren helbidea eta jarduera nagusia Nafarroan eduki beharko dute edo bertara etortzeko konpromisoa edukiko dute, eta haien liderrak sustatzailea eta gaitasunei begiratuta osagarria den zuzendaritza-talde bat, proiektuarekin konpromisoa duena, izanen dira, bai arlo ekonomikoari, bai arlo profesionalari erreparatuta.

Proiektuek zenbait ezaugarri bete beharko dituzte: ikuspuntu finantzariotik balioa sortzeaz gainera, inpaktu sozioekonomikoari eta hazkunde-gaitasunari dagokienez.

Horretarako, ebaluazioari begira, honako faktore hauek kuantifikatzen eta neurtzen dira:



Arlo honetan erabili beharreko babes finantzarioko tresnak honako hauek dira, proiektuaren beharrei eta tipologiai begiratuta:

Participación en capital	Préstamo participativo
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Entrada en capital. Participación entre el 5% y el 45 % de participación. ▪ Importes superiores a 400.000€ ▪ Participación temporal máximo 10 años (media 5 años). ▪ Presencia en el órgano de administración. ▪ Regulada permanencia y salida bajo pacto de socios. ▪ En régimen de coinversión buscando porcentajes de inversión en torno a un 30%. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Proyectos que por sus características hacen que esta figura sea más adecuada que la toma de participación: <ul style="list-style-type: none"> - Rentabilidad financiera para el accionista no tan elevada, con cierto riesgo y difícil financiación externa. - Dificultad para identificar potenciales compradores en una desinversión. - Estructura corporativa (jurídica o económica) que dificulta la toma de participación. ▪ Mayor de 400.000 €. ▪ En cofinanciación con las necesidades financieras totales ▪ Plazo aproximado entre 5 - 8 años y carencia de 1 - 3 años. ▪ Tipo de interés: Fijo (eurbor+3%) + Variable en función de la actividad y los resultados. ▪ Presencia de Sodena en el órgano de administración de la empresa, con determinadas materias reguladas.

Arlo honetako laguntza finantzarioari buruzko analisia konfidentzialtasun irizpideekin egiten da, eta sustatzaileak eskatzen baldin badu, irizpide horiek aldeek sinatutako dokumentu batez formalizatzen dira.

Lehenengo harreman bat ezartzen da, bileretan, elkarrizketetan eskura dagoen edo jaso den informazioan oinarritua; eta, proiektuaren ezaugarrien arabera, Sodenako Gerentziarekin batera, erabakitzen da hura analizatuko den eta zein lantaldek eginen duen analisi hori. Analisi prozesuan zehar, sortzen doazen ondorioak edo puntu kritikoak partekatzen dira, bai Sodenako gerentziarekin, bai, batzuetan, beste zenbait arlotakoak diren Sodenako kideekin.

Analisiaren helburua da proiektuaren ezagutzan sakontzea, laguntza finantzarioko proposamena edo txostena egin ahal izateko, betiere arriskuak identifikatuz, balio-sorrera kuantifikatuz

eta negozio plana laguntzarako tresnetako baten gisara erabiliz. Adibide moduan, honako jarduketak hauek eramaten dira aurrera:

- Sustatzaileari eta enpresaren egoera korporatiboari edo sozietate-egoerari buruzko informazio xehekatuagoa, horren barnean dela zuzendaritza-taldearen analisia egitea.

- Enpresaren jardueran eta negozio-ereduaren analisisan sakontzea, honakoei dagokienez: produktu edo zerbitzua, teknologia, jabetza intelektuala, kasua bada, lehiakideak, merkatua eta egungo bezeroak edo bezero potentzialak, salmentak eta merkaturatzea, prezioen politika, horniduren politika, giza baliabideak, finantzaketa-eredua, historikoak, proiektzioak, hipotesiak eta abarrekikoak.

- Negozio eredua ezagut dezaketenen hirugarrenetikiko edo egungo nahiz balizko bezero edo hornitzaileetikiko kontraste azkarra.

- Adituen berariazko txostenen, kontsulta osagarrien eta abarrekoen beharra aztertzea.

- Nafarroan egon daitekeen lehiaren azterketa exhaustiboagoa, baloratuz ea kasuko ekimenaren hazkundeak lehiakideei merkatu-kuota kentzen dien, produktua diferentziala den, eta merkatu-hobia eta egungo bezeroak eta balizko bezeroak berak diren.

- Negozio plana betetzearen jokaleku desberdinak aztertzea, arriskuak eta Sodenak espero ditzakeen errentagarritasun finantzarioak analizatzeko.

- Kasua bada, enpresa baloratzea, orokorrean onartuta dauden metodoak erabiliz.

- Balio sozioekonomikoa sortzeko faktoreen analisia eta amaierako kuantifikazioa.

- Desinbertsiorako aukerak.

- Laguntza finantzarioaren baldintza nagusien sustatzaileetikiko negoziazioa, bazkideen arteko itunak eta desinbertsioa, eta abar.

Analisiaren amaierako prozedura gisa eta administrazio kontseiluari erabakitzeke aurkeztu baino lehen, proiektua laguntza finantzarioko gainerako arloetako arduradunekin eta Gerentziarekin kontrastatu ohi da, eta azken hori da azken batean erabakitzen duena proiektua kontseiluari aurkeztu ala ez.

SODENAKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN OSAKETA

Sodenako administrazio kontseiluko burua, 2015eko irailetik, Garapen Ekonomikorako lehendakariorde eta kontseilaria da, eta beste bi kontseilari ere baditu, zeinak lehendakariordearen departamentuko bi zuzendari nagusi baitira. Ahotsarekin baina botorik gabe, idazkari bat eta NEKPeKo koordinatzailea joaten dira. Ez dago jasota kontseilarietako bakarrak ere ordainsaririk jasotzen duenik.

2015eko irailera arte, Sodenako Kontseilua 11 eta 12 kontseilari bitartek osatzen zuten; oro har, horien erdiak Foru Administrazioako goi karguak ziren eta gainerakoak, berriz, profesionalak eta enpresaburuak.

Kontseiluen osaerari buruz, arlo publikoan ez dago hori arautzeko berariazko araurik. Sodenaren estatutuetan aipatzen da, funtsean, kontseilu horrek hiru eta hamabi kontseilari bitarte izanen dituela, haren burua sozietatea atxikia dagoen Nafarroako Gobernuako Departamentuko titularraren izan dela, kontseilari pertsona fisiko zein juridiko bat izenda daitekeela, eta agintaldia lau urtekoa izanen dela.

Sodenak Nafarroako Gobernuaren arrisku-kapitalerako tresna gisa –Foru Komunitatean enpresa-proiektuak bultzatzeari begira– esleitua daukan helburua abiapuntu hartuta, egokitzen dugu gogoeta egitea jakite aldera ea administrazio kontseiluaren gaur egungo osaera nahikoa den enpresa-sektorearen, haren perspektiben eta beharizan finantzarioen ikuspegi zabalagoa lortzeko, bai eta Nafarroan gara litezkeen enpresa-proiektu estrategiko berrien beharizantarako ere.

ARAUDIA

Honako hau da Sodena SLk 2015etik 2017era bitarteko aldian egindako eragiketei aplikatzen zaien araudia:

- Sozietate publikoaren estatutu sozialak eta barne araudia.
- Sociedad de Desarrollo de Navarra SA sortzeari buruzko urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legea.
- Sodena SAren eraketari buruzko 68/1984 Foru Dekretua, 109/1984 Foru Dekretuaz aldatua.
- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea.
- Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, zeinaren bitartez onesten baita Kapitaleko Sozietateei buruzko Legearen testu bategina.
- Ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzkoa.

II.2. SOCIEDAD DAVALOR SALUD, SL

Beste ezer baino lehen, zehaztu beharra dago ondoren transkribatzen dugun informazioa funtsean atera dela Davalor Salud sozietatearen web orritik, Sodena sozietateak eta Nafarroako Gobernuak emandako dokumentaziotik eta Sodenako arduradunek Parlamentuan egindako agerraldietatik. Informazio honen zati bat aldez aurretik zabaldua edo/eta argitaratuta dago.

Davalor Salud SL 2011ko urtarrilean eratu zen, 3.000 euroko kapital sozialarekin. Gaur egun daukan helbide soziala Taxoaren, Arangurenen dago (Nafarroa).

Haren helburu soziala honako hau da:

“giza osasunaren arazoan esploraziorako, diagnostiko automatikorako edo diagnostikoan edo/eta tratamenduan laguntzeko ekipamendu eta programa informatikoak garatu, ekoitzi edo/eta merkaturatzea. Esploraziorako eta diagnostiko automatiko ekipamenduak erosi, alokatu eta saltzea, frankiziak erabiltzea barne dela”.

Zehatzago esanda, programa eta sistema informatikoak garatzeko sozietate bat da, bereziki ikusmen-funtzioaren esploraziorako, diagnostikorako eta tratamendurako. Halaber, goi teknologiko produktu optomekatronikoak garatzen ditu³.

Ikusmenaren funtzioak aukera ematen dio zerebroari begien bitartez iristen zaion informazioa interpretatzeko, haren esanahia ulertzeko eta erabakiak hartzeko, horren barnean direla begi-sistemaren funtzionamendua optimizatzen duten mugimendu-erabakiak. Ikaskuntzaren zatirik handiena, edozein adinetan, dela irakurmenaren bitartez, dela emulazioz, ikusmen-funtzioaren edo ikusmenaren baitan dago.

Ikusmen funtzioak ikusmenaren gabeziak ez ezik –errefrakzioa, hau da, begiko arazoak, nola baitira miopia, hipermetropia eta astigmatismoa, lentine edo prozedura kirurgikoen bitartez tratatu ohi direnak– honako hauen moduko arazoak ere:

- Ikusmen-zolitasuna.
- Akomodazioa eta fokuratzea.
- Binokularitatea, sakontasuna eta erliebea.
- Lateralitatea.
- Ikusmen-eremua, eta abar.

Honako hau da abiapuntua:

³ Davalor Salud SLk aurkeztutako alegazioaren arabera aldatutako lerrokada.

“populazioaren ehuneko 50ek ikusmenaren disfunzioaren bat badauka, eta hori haren ehuneko 10erako muga bat da garapen pertsonal eta profesionalerako, eta merkatuak gaur egun eskaintzen dituen zerbitzuak ez dira balizko eskaeraren ehuneko bira iristen”.

Jarduera horretarako, IKUSMENA proiektua garatzen da:

“Populazioaren ehuneko 100era bideratutako zerbitzu bat da, ezaugarri guztiz berritzaileak dituena orain arte eskaintzen ziren optometria zerbitzuekin alderatuta; teknologia aurreratu eta bakarra da, patenteek abalatzten dutena; urruneko euskarri klinikoa eta gaixoaren jarraipena eta zerbitzu errepikarien eskaintza, bai eta negozio eredu berritzaileak ere, berekin dakarte Ikusmena proiektua inbertsiorako aukera on bat izatea”.

Azken batean, proiektuak populazioaren ikusmenaren osasuna erraztu eta hobetu nahi du, modukoa den prezio batekin eta optiken laguntzaren bitartez.

Proiektu hori ezartzeko, Davalorrek ikusmenaren parametro gehienek neurketa zehatz eta objektiborako sistema autonomo eta automatiko bat sortu du, gaixoak 3D errealeko bideo-joko batekin jokatzeko duen bitartean. “Ikusmenaren Ebaluatzaile Automatizatua” (IEA) deitutakoa da: 2.1 metro luze den eta 1.200 kg-ko pisua duen makina bat da, 3.000 osagai inguru dituena (lau ordenagailu, 24 motor, 100 sentsore eta abar). IEA bakoitzak honako hauek dauzka: eserleku bat, buruko bat⁴ eta barneko elementuak eta modulu optikoak. (Ikus argazkia)




Makina horiek, azpikontratazio bidez, JOFEMAR enpresan (Azkoien, Nafarroan) ekoizten dira, QIOPTIQ enpresan (Munich, Alemania) ekoiztutako modulu optikoekin. Hornitzaile teknologiko gisa honako hauek dauzka: Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa, Tekniker, Telefónica, Microsoft... zeinek proiektuaren alde egin baitute. Proiektuan Nafarroako 60 enpresa baino gehiago daude inplikaturik.

⁴ Davalor Salud SLk aurkeztutako alegazioaren arabera aldatutako lerrokada.

Davalor Saludek 17,7 milioi inguru hartu ditu “crowdfunding” edo inbertsio kolektiboaren bitartez⁵, eginkizun horretarako sortutako plataforma bat erabiliz eta horretarako sortutako ondare erako lau sozietateren bitartez. I+G+b arloan 30 milioi euro inguru inbertitu ditu; horietatik balantzean 23 milioi kapitalizatu dira.

Negoziarako aurreikusi den garapena ondorengo irudian ageri dena da:



Davalor Salud enpresak gaur egun honako goitza hauek dauzka:

- Taxoaren, Arangurenen: goitza nagusia, helbide soziala, ingeniari-tza zerbitzuak eta kalitate eta administrazio arloak.

- Davalor Research Center, Terrassan, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan, zeinean, funtsean, ikerketarako klinika eta urrutiko diagnostikorako zentroa baitaude; halaber, makinaren prototipoak garatzen eta aztertzen dira. Balizko bezeroentzako (optikak) eta inbertitzaileentzako erreferentziako zentroa da.

- Datuen Prozesamendurako Zentroa, Alcalan, Telefónicaren zentro batean.

2016ko urrian, enpresan guztira 42 pertsonak egiten zuten lan: 33 Arangurenen, zortzi Terrassan eta bat Alcalan.

⁵ Davalor Salud SLk aurkeztutako alegazioan adierazitako zenbatekoa.

Davalor enpresak ISO 9001 eta ISO 13845 auditoriak gainditu ditu eta IEA makinek CE Technical File marka lortu dute, 2016ko azaroaren 11tik, zeina ezinbestekoa baita Europar Batasunean osasunerako produktuak merkaturatzeko⁶.

Bestetik, Nafarroako Gobernuak –2015eko irailaren 9ko saioan– “foru interesekotzat” jo du Davalorren enpresa-proiektua, Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzko abenduaren 9ko 15/2009 Foru Legeko 4. artikuluari jarraituz. Kalifikazio horrek ez dakar abantaila ekonomikorik, baizik eta soilik izapide administratiboetarako epeak soilteza.

NEGOZIO PLANA ETA BIDERAGARRITASUN PLANA

Aztertutako dokumentazioan zehar, Davalorren hasieran aurkeztutako negozio planaren zenbait gaurkotze ikusi ditugu. Gaurkotze horiek heldu dira IEA produktuaren garapenean gertatutako atzerapenetik, eta hori diru-sareren sorreran geroratze aipagarria ekartzen ari da, bai eta kostuen handitzea ere. Sodenaren iritzi, aipatutako planaren aurreikuspenak epe laburrean, behinik behin erdiesten zailak ziren merkaturatze-hipotesietan oinarrituta zeuden. Egoera horrek berekin ekarri du enpresa egoera finantzario kritikoa egotea.

2015eko irailean, Nafarroako Gobernuaren ekimenez, Sodenako administrazio kontseiluak milioi bat euroko partaidetza-mailegu bat eman zion Davalorri. Mailegu hori ematearen xedea zen langile-gastuetatik, gizarte segurantzaren kuotetatik eta merkataritza-hornitzaileekin eta finantza-hartekodunekin hartutako zorretatik heldutako berehalako beharrezko finantzatzea eta, halaber, proiektua garatzen jarraitu ahal izatea, ondoren, proiektuak beharrezko zuen finantzaketa gehigarria hartzeko prozesuarekin aurrera jarraitu ahal izate aldera. Mailegu horrekin, negozio planaren gaurkotze bat aurkeztu zen.

Azkenean, Davalorrek, 2016ko urrian, honako zerbitzu profesional hauek enkargatu zizkion aholkularitza-enpresa bati:

- Bideragarritasun plan bat egitea.
- Ahaleginak metatzea epe oso laburreko plan batean, IEA gutxi batzuk fabrikatuz, haiek merkatuan testatzeko eta haien merkaturatzearen bideragarritasuna aztertzeko; hori guztia, inbertitzaile handiei sarbidea eman baino lehen.
- Hartzekodunekin birfinantzaketarako akordioak lortzea eta inbertitzaile profesional berriak bilatzea, negozioaren garapenerako behar ziren kapitalak emanen zituztenak.
- Kudeaketaren eta diru-zaintzaren kontrola, baliabideak modu efizientean aplikatzeko.

Azken helburua da proiektuaren norabidea eta ikuspegia aldatzea, hura errealistago egiteko, enpresaren egungo egoerari egokitu. Kudeaketaren eta arriskuen mugatzearen aldaketa hori erabakigarria izan da Sodenaren ekarpen berriak adosteko.

2016ko azaroan, aholkularitza-enpresak bi fase bereizten dituen bideragarritasun plan bat aurkeztu zuen:

- I. fasea. 2016ko abendutik 2017ko ekainera. Horren helburua da zazpi IEA jartzea beste hainbeste optiketan, aldi baterako lagapen-araubidean, 2017ko apiriletik ekainera, eta merkatuaren erantzuna ebaluatzea. Fase hori, finantzaketa-beharrei eta zazpi IEAk instalatzeko akordioak egiteari begiratuta, bi azpifasetan banatuta dago: 2016ko abendura artekoa eta 2017ko ekainera artekoa.
- II. fasea. Baldin eta I. fasea arrakastaz amaitzen bada, fase horrek helburu du 2017ko abenduan oreka-puntu batera iristea, eta, aipatutako zazpi makinez gainera, beste batzuk instalatzea, aipatutako oreka-puntu horretara iristeko.

Bestetik, 2016ko abenduaren 1etik, Davalor Saluden eta aholkularitza-enpresaren arteko elkarren arteko kudeaketarako kontratua sinatu zen, zeinean kudeaketa- eta finantza-kontrolaren zerbitzuak garatzen baitira; hartara, honako hau jasotzen da bertan:

⁶ Davalor Salud SLk aurkeztutako alegazioaren arabera aldatutako lerrokada.

- Kudeaketaren kontrola. Aholkularitza-enpresak I. fasean finantzaketari lotutako kostuak eta gastuak aztertuko ditu. Bideragarritasun planak Davalorri exigitzen dio, besteak beste, zuzendari-tzako langileen soldatei muga batzuk jartzea.

- I. fasean, aholkularitza-enpresak Davalor Saluden diruzaintzan esku hartuko du, bi sozieta-teen arteko kontu korrante mankomunatu bat irekiz, eta aipatutako fase horretako gastuen ordainketen gaineko kontrola eginez.

- Hornitzaile eta hartzekodun estrategikoekiko negoziazioa. Hartara, 2016aren amaieran, adostasun batera iritsi zen guztizko zorraren ehuneko 78 duten Davalorren hornitzaileekin. Ez zen kitarik adostu, baizik eta ordainketen atzeratze edo geroratze bat, interesak barne⁷.

Baterako kudeaketarako kontratu horri indarrean eutsi behar zaio, hala exigitzen baitu Sode-nak, Davalorren bideragarritasun planean aurreikusitako I. fasearen amaierara arte.

Davalor Saludek, aholkularitza-enpresarekin batera, aipatutako planaren edukari eta ondori-oei buruz informatu zien sozietateari, aurreko etapa batzuetan, partzialki sostengua emandako inbertitzaile eta entitate batzuei –horien artean, Sodenari–.

2016ko abenduaren hasieran, Sodenaren eta Davalorren arteko finantzaketarako esparru-akordioa sinatu zen, non, besteak beste, finkatu baitzen Sodenak I. fasean emanen zuen laguntza finantzarioa, zeina, beste baldintza batzuen artean, inbertitzaile pribatuen laguntzari lotuta baitze-goen. Hau da, Sodenak laguntza hori emanen du behar bezala identifikatutako inbertitzaile pribatuek bideragarritasun planaren lehenengo faseko finantzaketa-beharrizanen ehuneko 50 bitarte ordaintzen badute, honako eskema honi jarraituz –zenbatekoak milaka eurotan emanda daude–:

Fasea	Davalorren finantza-keta-beharrizanak, guztira	Sodenak jarri beharrekoa	Inbertitzaile pribatuek jarri beharrekoa
I. 1.a			
2016ko abenduaren 5a arte	0,60	0,40	0,20
2016ko abenduaren 31ra arte	0,90	0,60	0,30
I.1. fasea, guztira	1,50	1,00	0,50
I. 2.a			
2017ko ekainaren 30era arte	3,00	1,25	1,75
I.2. fasea, guztira	3,00	1,25	1,75
I. fasea, guztira	4,50	2,25	2,25

Aurreko akordioaren emaitza gisa, I.1. fasea finantzatzeko, Sodenak Davalorri 2016an 0,4 milioiko mailegua eman zion, eta 2017an, berriz, 0,6 milioiko mailegua, behin inbertitzaile pribatuek jarritako zenbatekoak egiaztatuta. Fase hori amaitzen denean, eta haren emaitzak zein diren, Sodenak beste 1,25 milioi euro bitarte jarri ahalko ditu I.2. fasea finantzatzeko; ordainketa berri bakoitzerako, administrazio kontseiluaren berriazko onespena eskatuko da.

II. faserako, ez da Sodenak ekarpen berriak egiteko konpromisorik formalizatu.

2016ko abenduaren erdi parean, lehenengo IEA instalatu zen Tuterako (Nafarroa) zentro optiko batean. Instalazioan zenbait gorabehera tekniko antzeman dira, eta espero da haiek zuzentzea 2017ko apirillean merkaturako funtzionamenduan hasten denean. Bere aldetik Sodenak, 2017ko otsailean, kanpoko aditu bat kontratatu du bi hilabeterako, makinaren instalazioan eta funtzionamenduan aurkitutako gorabeherak zuzenean aztertzeko.

Aurreikusita zegoen gainerako sei IEAk 2017ko otsailetik apirilera instalatzea hainbat optika-tan. Urtarrilaren amaieran, hiru optikarekin sinatu ziren errentamendurako eta zerbitzu-ematerako kontratuak.

⁷ Davalor Salud SLk aurkeztutako alegazioaren arabera aldatutako lerrokada.

III. ONDORIOAK

III.1. SODENAK DAVALOR SALUD SL ENPRESARI EMANDAKO MAILEGUEN ZENBATES-PENA ETA EZAUGARRIAK

2017ko martxora arte aztertutako informazioaren arabera, Sodena sozietate publikoak Davalor Salud SLri guztira bi milioi euro egiten duten hiru mailegu eman dizkio.

Haien xehetasunak eta finantza-ezaugarri nagusiak 1. taulan ageri dira.

Gainera, Sodenak eta Davalorrekin sinatutako finantzaketarako akordioaren arabera, I.1. fasea amaitzen denean –2017ko ekainean– IEA makinaren merkatuko testean lortutako emaitzen arabera eta Davalorrekin ezarritako gainerako baldintzak betetzearen arabera, Sodenak 1,25 milioi euro bitarteko mailegu gehigarriak eman ahalko ditu.

1. taularen azterketa eginda, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Hiru maileguetatik, lehenengoa baizik ez da partaidetzakoa; beste biak Sodenak itundutako Europako Inbertsio Bankuaren programaren baitan finantzatutako maileguak dira.

- Azken bi mailegu horiek partaidetza-mailegu bihurtzeko edo Davalorrekin kapitalaren partaidetza bat eskuratzea ekar dezakete.

- Interes-tasari dagokionez, guztien erreferentzia 12 hilabeterako euriborra da, gehi ehuneko bosteko diferentziala (edo 500 oinarritzko puntu); partaidetza-maileguak, gainera, interes aldakorra dauka, Davalorrekin ekitaldi bakoitzean lortutako emaitza positiboekin lotua. Bi tasa horiek, Sodenaren iritziz, gaurko merkatu-baldintzekin pareka daitezke.

- Interesen likidazioa sei hilez behin egiten da lehenengo mailegurako eta urtean behin beste bietarako. Halaber, urtekoa da Davalorrekin lortutako emaitza positiboekin lotutako interesen likidazioa.

- Partaidetza-mailegua amortizatuko da bi urteko gabealdia gainditzen denean, urteko bi kuota konstanterekin bitartez; beste biak osorik amortizatuko dira indarraldiaren amaieran –hiru urte–. Printzipioz, guztiak 2019ko amaieran amortizatuta egonen dira.

1. taula. Sodenak Davalor Saludi emandako maileguak

Maileguak	Maileguak emateko formalizatu-tako data	Ezaugarriak	Zenbatekoa	Interesak	Printzipala amortizatzeako sistema	Kitatzerako aurreikusi den data	Funtsen zertarako
1. mailegua	2015eko urria	Partaidetza-mailegua	1.000.000	<ul style="list-style-type: none"> Tasa finkoa: 12 hilabeteko euriborra + % 5 Partaidetza bidezko tasa aldakorra: Zergak ordaindu ondorengo emaitza positiboan % 1 Seihileko eta urteko likidazioak 	Lau urtetan, bi urteko gabealdia-rekin	2019ko urria	Hainbat gastu finantzatzea
2. mailegua(*)	2016ko abenduak	EIBren mailegua, Sodenak erabakitako partaidetza-mailegu bihur ditaketeena edo Davalorren kapitalaren partaidetza bat hartzea ekar dezakeena	400.000	<ul style="list-style-type: none"> 12 hilabeteko euriborra + % 5 Urteko likidazioa 	Hiru urtetan, mugatutako eguneratzearen amaieran	2019ko abenduak	Bideragarritasun planeko l. 1. fasea finantzatzea
3. mailegua(*)	2017ko urtarrila	EIBren mailegua, Sodenak erabakitako partaidetza-mailegu bihur ditaketeena edo Davalorren kapitalaren partaidetza bat hartzea ekar dezakeena	600.000	<ul style="list-style-type: none"> 12 hilabeteko euriborra + % 5 Urteko likidazioa 	Hiru urtetan, mugatutako eguneratzearen amaieran	2019ko abenduak	Bideragarritasun planeko l. 1. fasea finantzatzea
Emandako zenbateko osoa			2.000.000				

(*) Sodenaren eta Davalor Saluden artean sinatutako finantzaketarako esparru-akordioaren babesean emandako maileguak

- Emandako funtsen xedea edo aplikazioa honako hau da:

a) Partaidetza-mailegua bideratzen da berehalakotasun handieneko beharrezanean erantzutera (langileak, merkataritza-hornitzaileak eta bestelako hartzekodun finantzarioak) eta, halaber, proiektua garatzen jarraitu ahal izatera, ondoren, proiektuak beharrezko zuen finantzaketa gehigarria hartzeko prozesuarekin aurrera jarraitu ahal izateko.

b) Beste biak Davalorren bideragarritasun planaren I.1. fasea finantzatzeko aplikatzen dira; fase horrek, funtsean, merkatuko testa egitea du ardatz.

- Lehenengo mailegua Davalorren patente teknologikoen gaineko bi eskubide errealekin bermatuta dago: lizentziak sortutako kreditu-eskubideen gaineko bahia eta patenteen gaineko higigarri-hipoteka, hurrenez hurren. Beste bi maileguak bermatuta daude Davalorren sustatzaile nagusiaren partaidetzen bi herenen Sodenaren aldeko pignorazioarekin, zamarik gabe.

III.2. SODENAK ARAUDIA BETETZEA DAVALOR SALUD, SLREN ALDEKO BI MAILEGUAK EMATERAKOAN

Sodena SL sozietate publikoak egindako laguntza finantzarioko jarduketak, Nafarroako Gobernua arrisku-kapitaleko tresna den aldetik, zalantza adierazgarri bat badute, finantzarioki lagundutako inbertsio-proiektuen balizko porrotetik heldu dena, horrek aplikatutako baliabide publikoen galeran edo gutxitzean izan dezakeen eraginarekin.

Sodenaren zuzendaritzak bermatu beharra dauka sozietate batzuei maileguak ematen zaizkionean eta bestelako laguntza-neurriak aplikatzen direnean, horiek aplikatzekoak diren arauen arabera direla, eta saiatu beharra dauka, arazoizkoak diren parametro ekonomikoen barruan, funts publiko horien kudeaketaren arriskua ahal den guztian gutxitzen.

Zehazki, Davalor Salud SLk aurkeztutako proiektuak, funtsean, honako ezaugarri hauek betetzen ditu:

- Nafarroarentzat interesa duen sektore estrategikoa da.
- Abiatze fasean dagoen enpresa-proiektu berria da eta haren IEA produktua oraindik ere ez da merkatura iritsi. Produktu hori berritzailea da, goi teknologikoa, eta bakarra da merkatuan.
- I+G+B arloan inbertsio bolumen handia behar da.
- Goi kalitateko eta kualifikazioko enplegu kopuru handia eskatzen du, bai zuzeneko enpleguak, bai zeharkakoak.
- Goi teknologiko enpresek proiektua laguntzen dute.
- Ikusten da erabateko identitatea dagoela administrazio-organoren, enpresaren zuzendaritzaren eta bazkide-sustatzaile nagusiaren artean.
- Printzipalaren finantzaketa inbertitzaile pribatuen bitartez egin da, eta enpresaren erabakietan parte hartzeko ahalmen gutxi dute.
- Enpresak jardun du jada merkatuan dagoen proiektu batenarekin pareka daitekeen egitura batekin –kostu handiarekin–, nahiz eta, egiazki, abiatze-fasean egon.
- IEA produktuaren garapenean atzerapena gertatzen ari da, eta hori diru-sarreraren sorreran geroratze aipagarria ekartzen ari da, bai eta kostuen handitzea ere. Egoera horrek funtsean eragina izan du bere hasierako negozio planaren balioan edo indarrean, eta egoera finantzario zaila ekarri dio enpresari.
- Aurreko jokalekuak eskatu du Davalorrek epe laburreko bideragarritasun plan zorrotza onetsi dezan eta aholkularitza-enpresa batek Davalorren eragiketak direla-eta kudeaketaren eta finantzen kontrola egin dezan.
- IEA produktuaren merkatuko testean arrakastarik izatekotan, anbizio handiko perspektibak daude, eta negozioarako ahalmen handia.

2012rako, Davalor Salud sustatzaileak aurkeztutako enpresa-proiektuarentzako balizko laguntza finantzarioa aztertu zuen Sodenak, eta laguntza hori ukatu zuen, proiektua hasierako fasean zegoelako.

2015ean, Sodenako administrazio kontseiluak, proiektuan antzemandako arrisku eta ahuldade nagusiak aztertuta, ondorioztatu zuen positiboki baloratzen zuela aurkeztutako proiektua, baina eskatu zuen kapitalean parte hartu baino lehen⁸, Davalor enpresak egiaztagiriak aurkez zitzala inbertitzaile profesionalek 11 milioiko inbertsio gehigarria egiteari buruz, negozio plana gaurkotu zezan eta zehatz dadin enpresak zenbat balio duen partaidetzaren eraginetarako, negozio planaren mugarrien betetzea aintzat hartuta.

2015eko irailaren 9an, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen, Garapen Ekonomikorako eta Ogasun eta Finantza Politikako kontseilariak proposatuta, Sodena premiatzea milioi bat euroko laguntza finantzarioa eman ziezaion Davalor Salud SLri, partaidetza-mailegu gisa edo egokituz jotzen zen beste formularen bat erabiliz. Erabaki hori txosten juridiko batek eta txosten ekonomiko batek babesten dute, biak ere Garapen Ekonomikorako Departamentuarenak; txosten juridikoan legezko abala ematen zaio laguntza emateko proposamen horri; txosten ekonomikoan, berriz, aztertzen dira Davalor enpresaren eta proiektuaren egoera eta inguruabarrak, proiektuak Nafarroan dituen ondorioak eta Sodenak aurrez egindako analisiak. Ondorioa da egokia dela Nafarroako Gobernuak proiektuari milioi bat euroko babes eman diezaion, berehalakoan diren beharrian finantzarioei aurre egin diezaien eta, ondoren, Sodenak eskatzen duen finantzaketa gehigarria hartzeko prozesua has dadin.

Geroztik, irailaren 17an, eta Gobernuaren aipatutako erabakia ikusita, Sodenaren administrazio kontseiluak erabaki zuen aipatutako partaidetza-mailegua ematea, zenbait baldintzarekin; baldintza horiek zerikusia dute, funtsean maileguaren baldintzekin eta bermeeekin eta Davalor Saludek bere zuzendaritza-zentroa eta zeharkako enplegu industrialaren aurreikuspenak Nafarroan egoten jarraitzearen truke.

Behin Davalorrek bideragarritasun plana aurkeztuta eta enpresaren eta Sodenaren arteko finantzaketarako esparru akordioa sinatuta, enpresa publikoaren administrazio kontseiluak, 2016ko abenduaren 1ean eta 2017ko urtarrilaren 16an egindako bileretan, erabaki zuen beste bi EIB mailegu ematea, 0,4 eta 0,6 milioikoak, hurrenez hurren.

Gure iritziz, Davalor Salud SLri emandako hiru maileguak, Sodenaren administrazio kontseiluak erabaki zituen. Horietatik lehena, Nafarroako Gobernuak eskatuta egin zen, Garapen Ekonomikorako Departamentuaren txosten teknikoetan oinarrituta; prozedura hori apartekoa da Sodenak enpresa-proiektuei babes finantzarioa emateari dagokionez. Beste bi maileguak Sodenak onetsi zituen bere zerbitzu teknikoek egoerari buruzko egindako txostenetan oinarrituta.

Sodenako zuzendaritzak negozioaren bilakaerari, hartatik eratorritako balizko arriskuei eta Davalor Saludek bete beharreko funtsezko betekizun edo baldintzen betetzeari buruzko jarraipen zorrotza egiten du, bereziki enpresaren bideragarritasun plana onetsi denetik. Hala eta guztiz ere, txosten hau egiteko garaian, honako hau ikusi dugu:

- Davalor enpresak ez ditu 2015eko urteko kontuak aurkeztu. Aurkeztu ditu bai 2015eko maiatzaren 31ko tarteko egoera-orrien itxiera bat, auditoria-txostenarekin batera, zeinean zenbait salbuespen biltzen dituen iritzi bat jasotzen baita.

- Davalorrek ez dizkio Sodenari ordaindu lehenengo maileguan sortutako interesak, zeinak 62.008 eurokoak baitira; zenbateko hori haren interesen lehenengo hiru kitapenei dagokie, honako xehetasun hauen arabera:

⁸ Hasiera batean, Davalorrek lau milioiko abala emateko eskatu zuen; gero, Sodenak horri ezezkua eman ondoren, laguntza-formula bera eskaini zitzaion, kapitalean parte hartzearen bitartez.

Aldia	Likidazio-eguna	Sortu diren eta ordaindu gabe dauden interesen zenbatekoa
2015eko 1. likidazioa	2015eko abenduaren 31	11.829
2016ko 1. likidazioa	2016ko ekainaren 30a	25.221
2016ko 2. likidazioa	2016ko abendua 31	24.958
Ordaintzeko, guztira		62.008

Zenbateko horri gehitu eginen zaizkio kontratuan jasotako berandutza-interesak.

Sodenak erreklamatu egin ditu zenbateko horiek.

- 2016an, enpresa ez dago egunean zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan.
- Halako atzerapen bat ikusten da bideragarritasun planaren I. fasean planteatutako aurreikuspenekiko, Tuteran instalatutako lehenengo IEA merkatuko funtzionamenduan sartzeari dagokionez eta fase berean aurreikusitako beste seiak instalatzeari dagokionez.
- Sozietatean egoera finantzario zaila antzematen jarraitzen dugu.

IV. IRUZKINAK ETA OHARRAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez txostenaren hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere.

IV.1. MILIOI BAT EUROKO PARTAIDETZA-MAILEGUA

2012an, aholkularitza-enpresa batek Sodenarekin jarri zen harremanetan, Davalor proiekturako balizko babes finantzarioa azter zezan. Hasierako azterketa egin ondoren, ondorioztatu zen ez zela azterlanarekin jarraitu behar, proiektua hasierako garapen-fasean zegoelako eta prototiporik ez zegoelako.

2015eko otsailean, Sodenari jakinarazi zitzaion Davalor proiektuaren sustatzailea Nafarroako Gobernuarekin harremanetan jarria zela lau milioi euroko abala eskatzeko, proiekturako kanpoko finantzaketa lortzea errazte aldera. Sodena sozietateak abal horren ematea aztertu zuen, eta ondorioztatu zuen proiektu horrek ez zituela betetzen ematerako beharrezko ziren baldintzak, funtsean egiazko bermerik ez zuelako eskaintzen; halaber, aipatzen zen ezen, proiektu hori babes-tekotan, arrisku-kapitalaren formularen bitartez egin behar zela, kapitalean parte hartuz. Sustatzaileak, hasiera batean, formula hori baztertu zuen.

Gero, sozietatearen egoera finantzario zaila zela eta, aipatutako sustatzaileak proposatu zuen laguntza-formula hori azter zedin. 2015eko maiatzean Sodenak analisia eta azterlanak hasi zituen.

Azterlan horiek 2015eko ekainean amaitu ziren, orduan Sodenak "Davalor Salud SLn inbertitzeari buruzko analisia" izeneko txostena egin baitzuen. Ondoren transkribatu ditugunak dira txosten horretan laguntza finantzarioa emateari buruz ageri diren ondorio nagusiak:

- *"IEA produktua teknologikoki berritzailea eta disruptiboa da eta bere balizko bezeroen beharraz egokitzen zaie, egungo prozesuak denboran eta norainokoa hobetzen baititu.*
- *Balizko bezeroek IEA onartzen dute eta epe laburrean merkatura daiteke; horrek Davalor Saluden negozio-eredua baliozkotzen du.*
- *Konpainiak bere proiektzio ekonomiko-finantzarioetan aurreikusten dituen zenbatespenak urrun daude errealistak izatetik; halere, haien ehuneko oso txiki bat erdietsita ere -% 3,9an zenbatetsi da-, proiektua ekonomikoki bideragarria izanen litzateke.*
- *Davalor Saludek gaur egun duen egoera finantzarioa kritikoa da. Hirugarrenekin 4,6 milioi eurotik gorako zor bat badauka, gaur egun muga-egunera iritsita dagoena; haren % 78,7 marxtotik iritsita dago muga-egunera, eta horrek larriki zailtzen du proiektuaren jarraitutasuna.*
- *Konpainiaren beharraz finantzarioak 6 milioi eurokoak direla zenbatetsi da, baina horrekin ez da estaltzen ez egungo zorra, ez eta baliabide finantzario gehigarriak ere, zeinak beharrezkotzat jotzen baitira 2015eko ekitaldiaren hasierarako. Horien arrazoia da atzerapenak daudela honako alderdiak direla eta: produktuaren amaiera, salmenta kontratuen sinadura, hornitzaile kritikoei zorra ordaintzea; gainera, inbertsio kolektiboko bideen funts gehigarriak ezin du erabili. Sodenak Davalorren diruzaintza-beharrak gaurkotu ditu, eta ez du aldatu 2015eko hipotesia: 15 milioioak dira.*
- *Sodenak jokaleku zuzurrago bat ere landu du, eta 2015eko finantzaketa-beharrak 17 milioi eurokoak lirateke.*
- *Sodenari eskatu zaion 4 milioiko laguntza finantzarioa gauzatu beharko litzateke egungo zorra eta beste inbertitzaile batzuen funts-ekarpenetarako konpromisoa ikusi ondoren, betiere 10 milioiko gutxieneko zenbatekora iristen bada. Ordainketa ekarpenetarako egutegi baten arabera egitea baloratuko da.*
- *Sodenak konpainian parte hartzeari buruz konpainiak egiten duen balorazioa ezin izanen da izan inolaz ere Davalor Saludek proposatu duen prezioan izan, eta proiektura bildutako inbertitzaile espezializatuekin batera negoziatu beharko da. Sodenaren proposamena izanen da*

jada jarritako funtsetatik hurbil dagoen balio bat zehaztea, partaidetza-lagapenak aurreikusiz negozio-planaren mugarrak betetzen doazen neurrian.

- *Halaber, erronda berri honen ekarpenak negoziatu beharko dira egungo inbertitzaileei begirako lehentasunezko likidazio-prozedura baten bitartez, eta Sodenak exigitzen du kasu jakin batzuetan beto eskubidea izatea.*

- *Sodenak enpresan irauteko aldia proiektuaren ontzeari egokituko zaio, eta ez litzateke zuzurra izanen 6 urtetik gorakoa izatea; 10 urtetik gorakoa ez da inolaz ere izanen, noski”.*

Halaber, argitzeko dauden edo informazio gehigarria eskatzen duten puntu batzuk badaude, funtsean urteko kontuei, bezeroekiko eta inbertitzaileekiko kontratuei, proiektzio finantzario doituagoi eta abarrekoiei dagozkienak.

Halaber, nabarmentzen dugu txosten horretan esaten dela ezen Sodenak bilerak egin dituela Espainiako merkatuaren ehuneko 23 hartzen duten optiken arduradunekin, eta ondorioztatu duela IEA produktua berrikuntza disruptiboa dela, goi teknologikoa, eta bakarra dela merkatuan. Halaber, arduradun horiek erakusten zuten unitateen kopuru jakin bat erosteko prest zeudela eta haien funtzionamendua eta erabiltzailearen erantzuna testatzeko prest zeudela.

Sodenako administrazio kontseiluak, 2015eko ekainaren 23an egindako bileran, ondoko hau erabaki zuen⁹, proiektuaren arrisku eta ahuldade nagusiak aztertu ondoren:

“Bertaratutakoek positiboki baloratzen dute aurkeztutako proiektua, eta galdatzen dute, eskatutakoa aintzat hartu baino lehen, Davalor Salud SLk justifikazioaren bat ematea honako hauei buruz:

- *Kaudimen aitortua eta profil industrial nahiz arrisku-kapitalekoa duten inbertsio-egile profesionaletatik heldutako 11 milioi euroko inbertsio gehigarri bat itxi izana.*

- *Davalor Salud en negozio planaren gaurkotzea, egungo proiektuaren egoerarekin hobekien ezkontzen diren hipotesiak jasoz.*

- *Konpainiarako balio bat zehaztea, eta, horrenbestez, Sodenaren partaidetzarako alde aurretiko balio bat, enpresa motaren eta haren heldutasun-graduaren arabera, betiere etorkizuneko mugarrak jarritik, haiek betetzearen bitartez sustatzaileei balioa aitortzen joan ahal izateko.”*

2015eko irailaren 9an, Nafarroako Gobernuak honako hau erabaki zuen, Garapen Ekonomikorako eta Ogasun eta Finantza Politikako kontseilariak proposatuta:

“Lehena. Sodena premiatzea, 15 eguneko gehieneko epe batean, milioi bat euroko laguntza finantzarioa eman ziezaien Davalor Salud SLri, partaidetza-mailegu gisa edo egokitzen jotzen zen beste formularen bat erabiliz.

Bigarrena. Laguntza finantzarioa emateko baldintzak horrelako eragiketarako ohikoak direnak izanen dira.

Gobernuaren erabaki hori, funtsean, honako hauetan babestuta dago:

- *Garapen Ekonomikorako Departamentuko Laguntza Juridiko eta Administratiboaren Zerbitzuak egindako txosten juridiko bat, zeinean ondorioztatzen baita emateko proposamena “zuzenbidearen arabera dela”.*

- *Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiak egindako txosten batek, Davalorren egoera eta hari buruzko dokumentazioa aztertuta, ondorioztatzen du “egokia dela Nafarroako Gobernuak proiektua lagun dezan. Horretarako, bidezkoa da, alde batetik, Sodena premiatzea proiektuari laguntza finantzarioa eman diezaien, partaidetza-mailegu batez edo egokitzen jotzen duen formula erabiliz, horren bidez konpainiak 1.000.000 euro eduki ahal dituzan berehalako beharrezko finantzarioei erantzuteko, eta ondoren proiektuaren arrakasta segurtatzeko beharrezko den finantzaketa eskuratzeko prozesuari ekin diezaien. Ekarpen finantzario hori Sodenak horrelako eragiketarako ezarri ohi dituen baldintzen arabera emanen da”. Txosten horretan aztertzen dira enpresaren eta haren proiektuaren egoera, Nafarroako industria-*

⁹ Bilera horren aktaren arabera, gaia kontseiluaren 2015eko maiatzaren 19ko bileran ere aztertu zen, eta ez zen hari buruzko erabakirik hartu.

ehunduran daukan eragina, balizko bezeroekin eta hornitzaile estrategikoekin izandako harremanak, negozio-plana eta Sodenak aurrez egindako txostenak, bai eta berehalakoena diren finantzaketa-beharrak ere. Sodenako administrazio kontseiluaren azken erabakiari dagokionez – 2015eko ekaina–, aipatzen da hornitzaileekin zor garrantzitsu bat izatea oztopo bat izaten ari dela Sodenak eskatzen dituen inbertitzaile profesionalen baliabide gehigarrien 11 milioiak lortu ahal izateko.

Sodenako administrazio kontseilu berriak¹⁰, 2015eko irailaren 17an egindako bileran, honako hau erabaki zuen Davalorren proiektuari buruz:

“Ikusita Nafarroako Gobernuaren 2015eko irailaren 9ko erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak Sodena premiatzen baitu milioi bat euro egiten duen laguntza finantzarioa eman diezaion Davalor Saludi, partaidetza-mailegu gisa edo egokitzen jotzen den formula erabiliz, horrelako eragiketarako ohikoak diren baldintzetan eta proiektuaren negozio plana berrikusi ondoren, bertaratuek honako hau erabaki dute aho batez:

1.a Davalor Salud SLri milioi bat euroko partaidetza-mailegu bat ematea, honako baldintza hauen arabera:

- *Davalor Saludek, maileguaren itzulketaren berme gisa, Davalor Consultoría Estratégica y Tecnológica SLrekin izenpetutako lizentzia-akordiotik heldutako eskubideak lagako dizkio Sodenari, eta azken sozietate horrek modu eskusiboan eta doakoan, denborako zein lurraldeko murriztapenik gabe, patentearen zuzeneko erabilera lagako du. Halaber, Davalor Consultoría Estratégica y Tecnológica SLk Sodenari lagako dizkio asmakariaren (egiazko 3Dko irudia ikuspena) diseinuko eta egiturako elementuen eta elementu ergonomiko eta estetikoaren jabetza-, erabilera- eta lizentzia-eskubideak, asmakariaren osagai gisa nahiz osotasun integral baten gisa, Davalorren xede sozialaz bestekoak diren gainerako jardura arloetan ez murriztapenik, ez mugarik jarri gabe.*

- *Mailegua ordaintzeko baldintzak gutxienez ere merkatukoak izanen dira; hori ez da eragozpena izanen goragoko ordainketak negoziatzeko, negozio plana betetzearen arabera.*

- *Davalorrek ezin izanen du dibidendurik banatu mailegua guztiz amortizatu arte.*

- *Konpainiak konpromisoa hartuko du, bere negozio planaren arabera, zuzendaritza-zentroa eta Produktuaren Ingeniaritza, Bideo-Jokoak, Sistemak eta Kalitate departamentuak Nafarroan edukitzeko eta Nafarroako zeharkako enpleguko aurreikuspenei eusteko, funtsean, gailuen fabrikaziorako prozesu industrialean.”*

Kontseiluaren akordio horren indarrez, honako dokumentu hauek idatzi eta haien eskritura publikoa egin zen 2015eko urriaren 9an:

- SODENAKo administrazio kontseiluaren erabakia eta botereak ematea.
- Partaidetza-maileguaren kontratua.
- Higigarri-hipoteka eta lekualdatzerik gabeko bahia.

Partaidetza-maileguaren ezaugarri finantzarioei dagokienez, honako hau adierazi beharra daukagu:

- Zenbatekoa: milioi bat euro.
- Zertarakoa: zehaztuta eta berariaz identifikatuta dator kontratuaren eranskin batean: langile-gastuak –ehuneko 31– eta merkataritza-hornitzaileen eta finantzaketa-hartzekodunei –ehuneko 69– ordaintzea.
- Indarraldia: 2019ko urriaren 9ra artekoa: lau urte.
- Amortizazioetarako egutegia: Lehenengo bi urteak gabealdikoak dira eta azken bietan, berriaz, urtean 0,5 milioi ordainduko dira.

¹⁰ Sodenako administrazio kontseilua berriro zen Nafarroako Gobernuan 2015eko irailaren 14an izandako aldatetaren ondorioz.

- Interes tasa:
 - a) Finkoa: 12 hilabeterako euriborra gehi ehuneko bosteko diferentziala.
 - b) Partaidetzaren araberako aldakorra: ekitaldi bakoitzaren zergak ordaindu ondoko emaitza positiboaren ehuneko bat.
 - Interesen likidazioa: finkoa, sei hilekoa; aldakorra, urtekoa.
 - Berandutza interesen tasa: itundutako bi interes tasei ehuneko bost gehituta ateratzen dena.
 - Muga-eguneratze aurreratua: 11 kasu aurreikusi dira guztira; horien artean, honako hauek nabarmenduko ditugu:
 - a) Davalorrek urteko kontuak ez entregatzea, interes aldakorra zehazteko.
 - b) Davalorrek maileguaren zenbatekoa ez erabiltzea ezarritako helbururako.
 - c) Davalorrek bere zerga-betebeharrak edo gizarte segurantzakoak ez ordaintzea hiru hilabetez.
 - d) Hiru hilekoren lan-harremanetatik heldutako ordainsariak ez ordaintzea.
 - e) Davalorren administrazio organoek kontratuaren eranskin batean berariaz aipatzen diren erabakietako bat hartzea Sodenaren berariazko adostasunik gabe (goi zuzendaritzako kontratuak egitea, 150.000 eurotik gorakoak; dibidenduak ordaintzea; negozio plana funtsetik aldatzea, eta abar).

Aurrekoa gorabehera, muga-eguneratze aurreratuko kausen gertatzea neutralizatzeko, kontratuan honako hau ere jasota dago: *“Baldin eta aldeetako batek, edozein unetan, kontratu honetan ezarritakoa zorrotz eta puntualki bete dadin exigitzeari uzten badio, hori ez da betebehar horri edo betebehar horiei emandako ukotzat hartuko, eta aipatutako aldeari ez zaio kenduko ondoren delako betebeharrak zorrotz bete daitezzen insistitzeko eta exigitzeko eskubidea. Uko oro berariaz eta idatziz egin beharko da”*.

- Davalorrek Sodenari aurkeztu beharreko informazioa:
 - a) Urteko kontuak.
 - b) Urteko aurrekontuak, hilez hileko xehakatzearekin, eta hiruhilero aurrekontuetan izan diren desbideratzeak.
 - c) Zuzendaritzak landutako informazio osagarria: datu finantzarioak, diruzaintza...
 - d) Administrazio kontseiluen aktak.

Mailegua bermatze aldera, honako eskubide erreal hauek eratu ziren Sodenaren alde, mailegua emateko akordioan aurreikusi bezala:

- Davalor Consultoría Estratégica y Tecnológica SLk Sodenaren alde egindako higigarri-hipoteka, jabetza industrialaren eskubideen gainekoa (lau patente). Hipoteka hori Madrilgo Ondasun Higigarrien Erregistroan inskribatuta dago.

- Lekualdatzerik gabeko bahi bat, Davalorrek Sodenaren alde emandakoa, Davalor Saluden eta Davalor Consultoriaren artean sinatutako lizentzia-akordiotik heldutako kreditu-eskubideen gainekoa. Gaur egun, Sodena erregistratzailearen errekerimenduak zuzentzeko prozesuan dago, horiek Nafarroako Ondasun Higigarrien Erregistroan behin betiko inskribatze aldera.

IV.2. EIBren 400.000 ETA 600.000 EUROKO MAILEGUAK

ALDERDI OROKORRAK

Finantzaketa akordioaren barruan, eta bideragarritasun planaren I.1. fasea finantzatzeko, Sodenako administrazio kontseiluak, 2016ko abenduaren 1eko eta 2017ko urtarrilaren 16ko bilere-tan, onetsi zuen Davalorri 0,4 eta 0,6 milioi euroko, hurrenez hurren, bi mailegu ematea.

Mailegu horiek EIBren linea baten bitartez ematen dira, eta Sodenaren erabakiz guztiz edo partzialki bihur daitezke –haien printzipala eta sortutako interesak– partaidetza-mailegu edo kapi-taleko parte-hartze. Interes tasak eta maileguen amortizazio egutegia EIBren baldintzen arabera-koak dira.

Sodenaren laguntza finantzarioa mugarrien egutegi batekin ordainduko da; mugarri horien ar-tean Davalorrek bete beharreko funtsezko baldintza hauek daude:

- Aholkularitza-enpresak baterako kudeaketarako kontratua formalizatu izatea; kontratu hori, gutxienez ere, bideragarritasun planaren I. fasea amaitu arte eduki beharko da indarrean.

- Inbertitzaile pribatuei inbertsioan akonpainamendua egitea, halako moduz non I. fasea amaituta inbertsio hori erdi bana egina egonen den.

- Sustatzailearen partaidetzen pignorazioa dela eta itundutako bermeak eratzea.

- Data hori baino lehen, optika baten konpromiso irmoa formalizatu izana, lehen IEA bat ins-talatzekoa, bideragarritasun planean ezarritakoaren arabera.

- Sodenari, 2016ko abenduaren 31 baino lehen, beste hiru IEA instalatzeko konpromiso irmo berriak entregatzea, negozio planeko I. fasean ezarritakoaren arabera.

- Sodenari, 2017ko urtarrilaren 31 baino lehen, beste hiru IEA instalatzeko konpromiso irmo berriak entregatzea; horrekin guztira 7 izanen dira, I. fasean aurreikusitakoaren arabera.

- Bideragarritasun planaren txosten osoa eta behin betikoa entregatzea.

- Planaren txosten horrek, besteak beste, honako baldintza hauek jasotzea:

- a) Bazkide nagusiaren lansariak gutxitzea.

- b) Langileei eta zuzendaritza-taldeari zor zaizkien lansariak ordaintzeko egutegi bat eta iriz-pide batzuk (2016ko abuztuan, irailean, urrian eta azaroan).

- 2017ko urtarrilaren 20a baino lehen, inbertitzaile pribatuek beren ekarpena egiteko konpro-misoa irmoki formalizatzea.

- Davalor Saludek Sodenaren laguntza finantzariotik eta inbertitzaile pribatuen laguntza finan-tzariotik heldutako maileguetako bakoitzari ematen dion erabilera ederki zehaztuta egotea ekar-pen bakoitzaren instrumentazioan, planeko aurreikuspenekin bat; eta horien erabilera eta zerta-rakoa aholkularitza-enpresaren bitartez kudeatzea eta kontrolatzea, baterako kudeaketarako kon-tratuan ezarritakoari jarraituz.

- 2016ko abenduaren 31 baino lehen itxarote-akordio bat lortzea sozietatearen hartzekodun diren hornitzaile gehienekin.

Aztertutako informazioaren arabera, berretsi da, oro har, aurreko funtsezko baldintza horiek bete egin direla; halere, zenbait optikatan planean aurreikusitako beste sei IEAk instalatzeko konpromiso irmoak atzeratu dira.

Halaber, Sodenak egiaztatu du inbertitzaile pribatuen aurreikusitako ekarpenek bideragarrita-sun planak lehenengo faserako ezarritako aurreikuspenak bete dituztela, bai egutegiari, bai ho-rien eta Sodenaren guztizko ekarpenaren berdintasunari dagokionez. Egiaztapen hori partikula-rren funtsak hartzeko sozietateen administratzailearen ziurtagiri batean oinarritu da; hartan esa-ten da, gainera, partikularrei inbertsioaren arriskuei buruz informatu zaiela.

Laguntza finantzarioaren berme gisa, bazkide nagusiak Davalor sozietatearen 823.240 partaidetza sozialen gaineko bahiaren eskubide erreala eratu du Sodenaren alde, euro bateko balio nominal unitarioarekin. Bazkide horren jabetzako partaidetza guztien bi heren dira, eta zamarik gabekoak dira.

400.000 EUROKO MAILEGUA

Lehenengo maileguari dagokionez, honako hau nabarmendu behar dugu:

- Zenbatekoa: 400.000 euro.
 - Kontratua sinatzeko data: 2016ko abenduaren 9a.
 - Xedea: Guztizko kopurua erabili eta aplikatu beharko da soilik eta bakarrik kontratuaren eranskin batean xehakaturako ordainketak egiteko: langileei berehala ordaindu beharrekoak eta bestelako gastu arrunt eta operatiboak.
 - Indarraldia: Hiru urte: mugaeguna 2019ko abenduaren 9a izanen da.
 - Printzipala amortizatzeko sistema: Sozietateak maileguaren printzipala amortizatu eta itzuli beharko du, kuota bakarrean, lehen aipaturako muga-egunean.
 - Interes tasak: Aldi bakoitzari aplikatu beharreko interes tasa Sodenak kalkulatu du 12 hilabeterako euriborrari ehuneko bosteko diferentziala gehituz; lehen aldian aplikatu beharreko interes tasa urtean ehuneko bostekoa izanen da. Ez da aintzat hartuko zerotik beherako euriborrik; hau da, balio negatiborik izanez gero, balioa zerokoa dela joko da.
 - Interesen sortzapena eta likidazioa: Interesak urtero likidatuko dira. Likidazioaren lehen aldia 2017ko abenduaren 31 izanen da.
 - Berandutza interesen tasa: urtean ehuneko 15ekoa.
 - Maileguaren mugaeguna aurreratze kasuak: Guztira 11 kasu daude; honakoak nabarmenduko ditugu, garrantzitsuenak direlakoan:
 - a) Sozietateak, haren bazkideek edo haren administratzaileek guztiz edo partzialki kontratuan hartutako betebeharrak urratzen dituztenean.
 - b) Davalorrek maileguaren zenbatekoa ez duenean erabiltzen ezarritako helbururako.
 - c) Sozietatearen datuen faltsutzea, zehaztasun eza edo gabezia egiaztatzen denean, bazkide nagusiaren deklarazioekiko edo/eta horrek aurkeztutako dokumentuetan, mailegua emateko oinarri gisa aurkeztu direnetan.
 - d) Ezarritako egunetarako ez direnean bete bazkideen ekarpenei buruzko estipulazioak, IEA gehigarriak instalatzeko konpromiso irmoak, bideragarritasun plana entregatzeko epea eta abar.
- Aurrekoa gorabehera, muga-eguneratze aurreratuko kausen gertatzea neutralizatzeko, kontratuan honako hau ere jasota dago: *“aldeetako bat kontratu honen arabera egoki lekiokkeen esku-bideren batez ez baliatzea ez da interpretatuko kontratu horri emandako uko baten gisara”*.
- Sodenak honako informazio hau edukitzeko eskubidea izanen du, baterako kudeaketarako kontratuan finkatzen denaz gainera:
 - a) Sozietatearen urteko kontuak eta, kasua bada, kudeaketa-txostena, zeinak ekitaldia ixten denetik hiru hilabetez egonen baitira eskuragarri.
 - b) Sozietatearen hiruhilekoko egoera-orri finantzarioak.
 - c) Administrazio kontseiluen eta bazkideen batzar orokorren aktak.
 - d) Kudeaketari buruzko adierazleak.
 - e) Urteko aurrekontuak.

- Sozietatearen helbidea eta jarduera Nafarroan mantentzea: Bazkide nagusiak konpromisoa hartzen du sozietatearen helbidea eta sozietatearen jarduera "nagusia" Nafarroako Foru Komunitatean mantentzeko.

600.000 EUROKO MAILEGUA

Behin egiaztatuta finantzaketa-akordioan aurreikusitako mugarriak bete direla, Sodenako administrazio kontseiluak baimena ematen du 600.000 euroko mailegu bat emateko; honako hauek dira haren ezaugarriak:

- Zenbatekoa: 600.000 euro.
- Kontratua sinatzeko data: 2017ko urtarrilaren 24a.
- Funtsen erabilera: Maileguaren zenbatekoa Davalorren esku jarriko du sodenak aholkularitza-enpresaren izenean irekitako banku-kontu batean, kudeaketaren eta diruzaintzaren kontrola, azken enpresa horrek esleitua duena, errazte aldera.
- Xedea: Guztizko kopurua erabili eta aplikatu beharko da soilik eta bakarrik kontratuaren eranskin batean xehakaturako ordainketak egiteko: hornitzaileei berehala ordaindu beharrekoak, 2016ko abenduko nomina, gizarte segurantzaren eta PFEZaren atxikipenak.
- Indarraldia: Mugaeguna 2019ko abenduaren 9a da.
- Printzipala amortizatzeko sistema: Sozietateak maileguaren printzipala amortizatu eta itzuli beharko du, kuota bakarrean, lehen aipaturako muga-egunean.
- Interes tasak: Aldi bakoitzari aplikatu beharreko interes tasa Sodenak kalkulatu du 12 hilabeterako euriborrari ehuneko bosteko diferentziala gehituz; lehen aldian aplikatu beharreko interes tasa urtean ehuneko bostekoa izanen da. Ez da aintzat hartuko zerotik beherako euriborrik; hau da, balio negatiborik izanez gero, balioa zerokoa dela joko da.
- Interesen sortzapena eta likidazioa: Interesak urtero likidatuko dira. Likidazioaren lehen aldia 2017ko abenduaren 31 izanen da.
- Berandutza interesen tasa: urtean ehuneko 15ekoa.
- Bahiaren hedadura: Kontratuan ezarritakoarekin bat, aldeek deklaritzen eta onartzen dute bazkide nagusiaren partaidetzen gaineko bahia hedatzea mailegu hau ematetik heldutako bete-behar guztietara.
- Konpromiso gehigarri gisa, honako hauek ezartzen dira:
 - a) Davalorrek konpromisoa hartzen du eta bere burua behartzen du ez zuzendari-tzako/erabakimeneko egiazko zentroa, ez eta Produktuaren Ingeniaritzako, Bideo-jokoetako eta Sistemetako eta Kalitateko departamentuak ere, gaur egun Nafarroako Foru Komunitatean daudenak, kanpora ez eramatera.
 - b) Kontratuaren indarraldi guztian, eta sozietateak eta bazkide nagusiak bere gain hartutako informazio-betebeharren osagarri gisa, haren indarrez, Davalorrek Sodenari hamabostean behin txosten bat igorri beharko litzaioke, zeinean xehetasun guztiekin deskribatuko baitu edozein gorabehera tekniko edo egitate garrantzitsu, Tuteran instalatutako IEA dela-eta edo sozietateak instalatzen dituen gainerako IEAk direla-eta.
 - c) Halaber, Sodenak, planean ezarritakoaren arabera aurrera eraman beharreko jarduketak betetzearen gainean egin beharreko jarraipenaren atal gisa, eskubidea izanen du profesional bat izendatzeko, proiektuaren eta, kasua bada, gorabeheren eta atzerapenen jarraipen tekniko eginen duena, bai eta b) letran aipatzen diren txostenak ere. Horretarako, sozietateak eta bazkide nagusiak konpromisoa hartzen dute eta beren burua behartzen dute aipaturako teknikariaren lana erraztu eta aldezteko, eta aukera emanen diote instalatutako IEAk bertatik bertara aztertzeko; gainera, eskatzen duten dokumentazio edo/eta informazio guztia emanen diote, aipaturako jarraipena egin dezan. Sodenak egokitzat jotzen duen profesionala kontratatuko du bere izenean, eta sozietateari ordainarazi ahalko dizkio zerbitzu-prestazio horrek sor litzakeen kostuak. Azken au-

reikuspen horren ondorioz, 2017ko otsailaren 8an, Sodenak kanpoko profesional bat kontratatu zuen bi hilabeterako.

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzailea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga

DAVALOR SALUD SLK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK

Emandako epearen barruan, Davalor Salud SLk alegazioak aurkeztu dizkio behin-behineko txostenari. Alegazio horietako batzuk behin betiko txostenean sartu dira; hori dela eta, ez ditugu transkribatu. Aipatutako txostenaren testuan berariaz aipatzen dira alegazio horien arabera aldatu diren lerroak.

Ondoren, txostenaren testuan sartu ez den alegazioa gehitu dugu. Izan ere, hartan eraginik ez duten zehaztapenak edo xehakapenak jasotzen ditu.

Behin-behineko txostenari egindako alegazioak: Sodena SL sozietate publikoak Davalor Salud SL enpresari emandako maileguak

Kontuen Ganberako idazkariaren eskutik gaiari buruzko behin-behineko txostena jasota, bera aztertu eta maiatzaren 22a baino lehen alegazioak aurkezteko, honako hau jakinarazi behar dizut:

Lehen: ados gaude txostenean deskribatutakoarekin, ondoren datozen ohar eta iruzkinen salbuespenarekin.

Bigarrena: Salbuespenak, garrantziaren arabera hurrenkeran.

21. or.: Honako hau dio: “Enpresak jardun du jada merkatuan dagoen proiektu batenarekin pareka daitekeen egitura batekin –kostu handiarekin–, nahiz eta, egiazki, abiatze-fasean egon”.

Davalor Salud en organigraman, hiru arlo nagusi zehazten dira: ingeniariak, zerbitzu korporatiboak (kalitatea, administrazioa eta finantzak) eta eragileak. Honela tratatu dira:

– **Ingeniariak:** Davalor Salud en munta handiko garapen teknologiko bat egin behar izan du, eta horretarako behar diren baliabideak behar izan ditu. Honako hau nabarmendu beharra dago:

- IEA produktuaren 3.000 osagaiek (12. orrialdean aipatzen da hori) ingeniarietako banakako lana eskatu dute (errekerimenduak, zehaztapenak, diseinua, hornitzaileak bilatu eta hautatzea, kontratuak negoziatzea, prototipoak egin eta entseguak egitea eta abar). Gauza bera aplikatu behar zaie IEA azpisistema anitzetako bakoitzari. Ingeniarietako arloko ahalegin horrek langile ugari ez ezik, plantillakoak zein azpikontratatuak, merkatuan profil bakarrarekin topatzen ez diren jakintza-espezialitateen multzo bat ere eskatzen du: diseinua, mekatronika, elektronikak eta maila baxuko programazioa, PLCen programazioa, optika, ikusmenaren optika, simulazio mekanikoa, simulazio optikoa eta abar.
- Davalor Salud en sistema informatikoen azpiegiturak (Datuen Prozesamendurako Zentroa – DPZ–, Iruñean dagoena; gaitasun, segurtasun eta baliagarritasun handiko DPZa, Alcalá de Henaresen dagoena; diagnostikoko urrutiko zerbitzuetako zentroak Terrassan, eta monitorizazio teknikokoak, eta software-zabalpenen arlokoak, Iruñean) ingeniarietako berariazko ahalegin handia eskatu dute. Beste behin, ingeniarietako ahalegin horrek eskatzen du langileen kopuru bat ez ezik, plantillakoak izan nahiz azpikontratatuak izan, jakintzaren arloko espezialitateen multzo bat ere, merkatuan profil bakarrean aurkitzen ez direnak (azpiegituren diseinua, azpiegituren lizentzia eta aplikazioak, DPZaren ezarpena, komunikazioen ingeniarietako, mikroinformatika eta abar).
- Negozioan operatzea bideratze duten azpiegitura informatikoen, besteak beste, IEAren kontrol-warea (mekatronikaren zati bat) hartzen dute, zenbait mailatan eta programazio-hizkuntzatan; denbora errealeko irudi-analisirako softwarea; zehazki diagnostikarako softwarea, bere adar desberdinekin, erabiltzaileen fisiologia- eta jokaera-kasu desberdinen arabera; proba optometrikoen gamifikaziorako softwarea, eta aurrekoekin denbora errealean elkarrengatik 30 bideo-joko; bideo-jokoen motorra; urrutiko diagnostikarako zerbitzuko ticketing-warea; gorabeheren ticketing-warea egiteko softwarea eta urrutiko monitorizatzeko

zerbitzurako zabalpenen kontrolerako softwarea; profesionalari eta amaierako bezeroari da-tuetarako sarbidea emateko Interneteko atari seguruak; web korporatiboa, eta abar.

- Ikerketarako Klinikak, zerbitzu klinikoak garatzeko ezinbestekoa denak, berariazko profilak eskatu zituen, bai arlo klinikoan, bai ezagutzaren eragina segurtatzeko, bai eta behar den ikaskuntza bideratzen duten zerbitzu klinikoak emateko ere. Zerbitzu horiek xede horretarako legeak exigitzen duen figura bat behar zuten (Klinikako zuzendari teknikoa), bai eta bezeroen bolumenari erantzuna emateko ezinbestekoak diren langileak ere.
- Kapitala inbertsio kolektibo moduan lortu a (13. orrialdean aipatzen da), eta horretarako berariazko baliabideak behar izan dira, laguntzarako web plataforma bat garatu, mantendu eta erabiltzeko; plataforma horrek, halaber, 3.000 inbertitzaile kolektibo baino gehiagorekin elkarre-reragin intentsiboa bideratu behar zuen.
- Eta abar.

– **Zerbitzu korporatiboak.** Davalor Saludek Kalitatearen arloan zenbait baliabide behar izan ditu, EEko ziurtagiria lortzeko prozesuari ekiteko: kalitateko barne sistemak ezarri eta ziurtatzea, hornitzai-leen kalitate sistemak auditatzea, Technical File deitutakoa dokumentatzea (2.000 orrialde baino ge-hiago) eta abar. Halaber, langileak behar izan ditu administrazio eta finantzen arloan eta marketin estra-tegikokoan, eta abar.

– **Eragiketak.** Davalor Saludek ez du langilerik kontratatu arlo honetan eta ez zuen halakorik egin, ezta ere, lehenengo IEA merkatuan instalatu zuenean, 2016ko irailean, zeren eta oraindik ere merka-tuko esperimendazio-fasean baitzegoen.

– Horretatik guztiatik, honako hau ondorioztatzen dugu:

- Davalor Saludek behar izan dituen baliabideak erabili ditu bere produktua eta negozioa ga-ratzeko, bai plantillako kontratazioaren modalitatean (helburuetako bat ezagutzari atxikitzea zen), bai azpikontratazioarenean ere.
- Ontzat ematen dugu goi teknologiko garapen bati aurre egiteko, hainbat dimentsiotan, eta mundu mailan berritasun muturrekoa den arlo batean ari garela, erabaki oker gehiago hartu ditugula esparru errazagoetan eta ezagunagoak direnetan eginen genituzkeenak baino. Erabaki oker horiek baliabideen erabileraren arloan geneukan efizientzia gutxitu dute, baina une honetara arte ez dute konpromisoan jarri garapen tekniko eta merkataritzakoaren era-ginkortasuna.

– Garapen teknologiko handi bati aurre egitea, jakintzaren espezialitate ugarritan, bai eta garapen ho-rren izaera disruptiboa dela eta kudeaketan gertatu diren ustezko efizientzia-ezek eragin dute, txoste-nean aipatzen den bezala, “gastu handia eduki izana”. Uste dugu, halere, txostenean erabilitako adie-razpide honek ez duela errealitatea islatzen: “Enpresak jardun du jada merkatuan dagoen proiektu bate-narekin pareka daitekeen egitura batekin –kostu handiarekin–, nahiz eta, egiazki, abiatze-fasean egon”.

- Adierazitako eskemak –“abiatze fasean dagoen enpresa” versus “merkatuan dagoen en-presa”– alde batera uzten du “produktua eta negozioa garatzen ari den enpresaren” kon-zeptua, zeina tamaina handikoa izan baita Davalor Saluden kasuan. Aldez aurretiko gara-pen hori gabe, ez luke zentzurik izan enpresa abiatzea, eta ezinezkoa izan litzateke merkatuan egotea.
- Gastua termino absolutuetan handia edo txikia izan den, ezin da juzgatu merkatuan egotea-ren ala ez egotearen alderaketaren bitartez, baizik eta proiektatutako ahaleginaren alderake-taren bitartez.

2017eko uztailaren 20a

Juan José Marcos Muñoz, Davalor Salud SL